



MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2009ko apirilaren 23an egindako batzarraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

“ITURRIOTZ AUZOKO DORRETXEA BIRGAITZEKO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK BEHIN BETIKOZ ESLEITZEKO PROPOSAMENA

2009ko apirilaren 1ean Udal Osoak, “Iturriotz auzoko Dorretxea birgaitzeko proiektuan sartutako obrak” behin behingo izaeraz Construcciones Dumboa S.A.ri esleitzea erabaki zuen.

Construcciones Dumboa S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Iturriotz auzoko Dorretxea birgaitzeko proiektuan sartutako obrak” behin-betiko Construcciones Dumboa S.A.ri (NIF A-20135935) esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 408.319,83 €koa da (BEZ kanpo). BEZa 65.331,17 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 473.651,00 €koa da eta ordainketa Udal Aurrekontuko 1 0301.622.439.00.01 (A 501/09) partidaren kontura egingo da.

Bestalde, egikaritze epea 3,5 hilabetekoa da eta obran 9 pertsona okupatuko ditu, 5 enpresan integratutakoak eta 4 kontratazio berrikoak.

Halaber, lizitazioan parte hartzeko proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabakia da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Erreti Eraikuntzak S.L.
- Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A.
- Construcciones Dumboa S.A.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate Ina.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren hogeita hiruan.

